

B

JARDUERA TXOSTENA

2015

FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA

135

B

AURKIBIDEA

2015KO EKITALDIA – AURKEZPENA	4
BILDUMAK	7
ERAKUSTAK	11
HEZKUNTZA	17
BESTE JARDUERA BATZUK	24
KOMUNIKAZIOA/BISTARIAK	30
DATU EKONOMIKOAK	33

Cristóbal Balenciaga Fundazioa 1999an sortu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuta dago (F-91 zenbakia), eta bere helburua Cristóbal Balenciaga Eizaguirre moda-sortzaile getariarraren ekarpen eta dohainek modaren, goi-mailako jostuntzaren eta jantzien diseinuaren munduan izan duten eragina ezagutaraztea, zabaltea eta indartzea da.

Honako erakunde publiko hauek dira Fundazioaren Patronatuko kideak:

- Gipuzkoako Foru Aldundia (bi ordezkari)
- Eusko Jaurlaritza (bi ordezkari)
- Kultura Ministerioa (bi ordezkari)
- Getariako Udala (ordezkari bat)

Horiez gain, esparru pribatuko beste kide batzuek osatzen dute Fundazioko Patronatua; besteak beste, ACMEko (Espainiako Moda Sortzaileen Elkarte) ordezkari batek eta hiru kide pribatuk.

Fundazioaren ohorezko kargudunak honako hauek dira:

- Ohorezko presidentek Espainiako errege-erreginak
- Presidente fundatzailea Monsieur Hubert de Givenchy

Fundazioak aurretik adierazitako helburuak lortzeko duen tresna nagusia Cristóbal Balenciaga Museoa da, Fundazioak bera kudeatua. Museoa 2011ko ekainaren 6an zabaldu zituen ateak, Getarian.

B

2015KO EKITALDIA

Aurkezpena



Qry Lue

2015a museo-ereduaren berrorientazio estrategikoaren urtea izan da. 2015-2019 aldirako museoaren esparru estrategiko eta jarduteko berria definitu ondoren, lehen urte honetan, definitutako jarduera-ildoak landu ditugu; hartara, Fundazioaren azpiegitura eta lan egiteko modua berau jasangarriagoa izateko noranzkora orientatzeko gradualki, bere misioa lortze aldera.

Ildo horretan, Museoak honako hauek zituen urteko lehentasunezko helburu:

- Azken lau urteotan izandako bisitarien jaitsiera geldiaraztea, eta joera hori alderantzikatzea.
- Antolaketa- eta museo-prozesuak sendotzea.
- Museoa Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren programan txertatzea bilatzea eta lortzea, hurrengo ekitaldiko kultura-erreferentziako funtsezko esparru baita.
- Presentzia eta interrelazio handiagoa lortzea nazioarteko museo-planoan, kanpoaldera irekita bai museoa bai bere bildumak.
- Lotura hobea izatea tokiko ingurunearekin: publikoak eta eragileak, kultura- eta aisia-eskaintzaren dibertsifikazioan bilaketa aktiboa eginez, publiko-espektro zabalago bat erakartzeko.

Jardueraren laburpen txiki honetan antzeman daitekeenez, poz handiz esan dezakegu zehaztutako helburu horietako bakoitzean aurrerapen kuantifikagarriak lortu ditugula. Hala frogatzen dute ondorengo adierazleek:

- Aurreko urtean baino % 6,5 bisitari gehiago izan ditugu (40.000 bisitari, guztira), bai eta % 8 erabiltzaile gehiago ere (hots, 1.500 pertsona, guztira).
- Parte-hartzaileak oso pozik irteten dira bisitetatik eta jardueretatik, egiten ditugun publikoen azterlanen arabera, eta erabiltzaileek Google, Tripadvisor, Minube eta horrelako sareko plataforma independenteetan egiten dituzten ekarpenak 4,5/5 ingurukoak dira.
- Indartu egin dugu bilduma dohaintza berriekin, eta berau dibertsifikatu egin dugu xx. mendearen hasieratik aurrerako moda-aldizkarien dokumentu-funts bat sortzearekin, bai eta Etxeko langileen ahozko testigantzen funts immaterial berri bat sortzearekin ere.

- Bildumari balioa erantsi diogu eta ikerketa-lana egin dugu; izan ere, «Luxuaren esperientzia» erakusketa propioa produzitu dugu eta parpailari buruzko erakusketa handi bat koproduzitu dugu Calaisko Cité Internationale de la Dentelle museoarekin batera, Catherine Join-Dieterle adituak komisariatuta, eta nazioarteko proiektioarekin.
- Programazioa partekatu dugu Donostia Kultura Hiriburuekin, «Elkarrizketak» programaren barruan, moda eta arte eszenikoak arte-diziplinen arteko elkarrizketari buruzkoan. Zehazki, erakusketa bat, bi teknifikazio-ikastaro, kontzertuak eta dantzak egin dira museoan, eta Dantzaz konpainia eta Vitali Safronkine koreografoa egoiliar izan ditugu.
- Proposamen berriak sortu ditugu publikoak dibertsifikatzeko (4 bisita-mota berri, eta «Balenciagaren itsasoa» eta «Balenciaga gertuago» turismo- eta kultura-programa konbinatuak).

Horregatik guztiagatik, uste dugu biziberritzen ari garela anbizio eta ilusio handiko proiektu zabal hau; pixkanaka ikusiko ditugu bere fruituak, erritmo konstantean, museoaren etapa honetarako markatutako horizonte estrategikoaren barruan.

Miren Vives Almandoz
Cristóbal Balenciaga Museoa

B

BILDUMA

Bilduma eta ikerketa-ildo berriak



Cristóbal Balenciagari eskainitako espazio monografikoa den aldetik, moda-sortzailearen obraren inguruan ikertzea eta sakontzea dagokio museoari, bai eta haren irudiarekin erlazionatutako beste alderdi batzuk aztertzea ere, Balenciagaren lan eta ekarpenak testuinguruan kokatu ahal izateko. Hain zuzen ere alderdi horiei –ez daude Museoaren oraingo diskurtsoaren barruan– eskaini nahi die ikerketa-arreta museoak 2015ean eta 2016an.

Besteak beste, Cristóbal Balenciagak enpresaburu gisa egiten zuen lanean sakondu nahi dugu: tailerren antolaketa, lanbide ezberdinak, salmenta-estrategiak, eta abar. Eta, horrez gain, haren izaera eta lan egiteko modua nolakoak ziren ezagutu nahi dugu; gainontzeko pertsonekin nolako harremana zuen, alegia. Bi alderdi horiek biltzen ditu, bada, honela deitu dugun urteko linean: *Josten duten eskuak*

Garrantzi handikoak dira Balenciagak han-hemenka zeuzkan tailerretako langileen testigantzak; izan ere, haien guztien lan eta ardurari esker izan zituen Balenciagaren fintasun eta dotoretasunak halako zabalkundea bertako zein atzerriko areto eta ekitaldietan. Horregatik, elkarrizketa pertsonalen eta galdeketen bidez, enpresaren kudeaketari, Balenciagaren izaerari eta bere inguruari buruzko informazioa bilduz joan gara.

Aldi berean, zientzia-profil sendoagoa emateko asmoz, Espainia eta Frantziako administrazio-artxiboak ere begiratu ditugu. Testigantzek eta beren testuinguruek museoaren ondare immateriala osatuko dute etorkizunean.

Bestalde, Cristóbal Balenciaga Fundazioko presidente sortzaile Hubert de Givenchyk, egitasmoari laguntzeko, bere aldizkari-liburutegi pertsonala eman dizkio dohaintzan Museoari (1930eko eta 1980ko hamarkaden arteko nazioarteko aldizkaririk garrantzitsuenen bilduma).

Gainera, EISA Barcelonako langile ohi Pedro Estebanek bere moda-liburutegia eman du dohaintzan; hots, Ingalaterrako, Frantziako, Italiako, Alemaniako eta Espainiako 200 aldizkari baino gehiago eta ebaketa eta jantzigintzari buruzko espainolezko zenbait eskuliburu. Horri guztiari esker, beste urrats bat eman dugu etorkizunean museoan modari buruzko dokumentu-espazio bat sortzeko.

Nazioartean ezagunagoak izatea

BESTE ERAKUSKETA BATZUEI EGINDAKO MAILEGUAK

Balenciagaren lanak eta Balenciagak berak interesa pizten dute mundu osoko beste museo eta arte-zentro batzuetan. Horregatik, 2014an, bildumako piezak mailegatzeko eskaera asko jaso ditugu. Eskaeren artean, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- *Figuratuak. Figurazioak. Figuranteak*
Javier González de Duranak Bilboko Iberdrola Dorrean antolatutako erakusketa. Erakusketa horretan, EAEko museo garrantzitsuenen funtsak aurkeztu ziren, 1968tik gaur egunera arteko artistenak, eta Manuel Outumuroren 6 argazki eta gaueko soineko bat mailegatu genituen.
- *China Through the Looking Glass*
New Yorkeko Metropolitan Arte Museoko Costume Institute gunean egindako eta Andrew Boltonek komisariatutako erakusketa. López-Willshaw andrearen jabetza den chenille-oihalezko brodatu joria duen gaueko soinekoa eskatu zuten, XX. eta XXI. mendeetako diseinatzaileengan eta beste diziplinetako artistengan Asiako herrialdeek izandako eragina islatzeko asmoz.
- *Ezkontza-soineko ahaztezinak*
Cadavalgo dukesak eta Hubert de Givenchyk antolatutako erakusketa. Mota honetako zeremonia bat irudikatzeko inguru ezin hobean kokatutako erakusketa honetan, goi-mailako joskintzako hainbat diseinatzaile handiren ezkontza-soinekoak aurkeztu ziren. Horregatik, museoak bildumako ikonoetako bat mailegatu zuen: Sonsoles Díez de Riveraren 1957ko ezkontza-soinekoa.

IKERTZAILEAK HARTZEA ETA BESTELAKO KOLABORAZIOAK

2015ean, Balenciaga Paris etxeko kanpo-ikerlarien talde bat izan dugu gure artean, Balenciaga Artxiboen arduradunaren bitartekaritza. Beste ikertzaileen kasuan baino pieza gehiago aztertzeko aukera eman diogu ikertzaileari, lotura estrategikoa baita guretzat.

Beste alde batetik, bildumen sailean eta zuzendaritzan bisita profesionalak jaso ditugu, hala nola honako hauenak.

- Kaat Debo, Anberesko Modaren Museoko zuzendaria
- Valeria Steele, New Yorkeko FITeko Museoko zuzendari eta kontserbazioburua
- Andrew Tucker, London College of Fashion eskolakoa

LINEAKO INBENTARIOA

EMSIME dokumentuak kudeatzeko lineako sistema bat da, Eusko Jaurlaritzak sustatua. Euskal Autonomia Erkidegoko museo publiko eta pribatuetako ondasun kulturei buruzko informazioa eta irudiak biltzen ditu.

Museoak bete beharreko zabalkuntza-zereginerako plataforma egokitzen joenez, museoak bildumei buruzko informazioari eta irudiei alta eman zaie.

Zehazki, 2014-2015eko bildumako sarrerei dagozkien 450 fitxa berriri eman diegu alta 2015ean. Fitxa horiek dagozkion argazkia eta datuak jasotzen dituzte (deskribapena, egilea, datazioa, dohaintzari buruzko informazioa, etab.).



B

ERAKUSKETAK

Balenciaga eta testuingurua



Aurtenaldi baterako hiru erakusketa egin dira, museoko erakusketa egonkorraren osagarri gisa: Horietako bi, *Balenciaga, luxuaren esperientzia* eta *Balenciaga eta arte eszenikoak* museoak berak ekoitzi ditu bere bilduma eta ikerketa-proiektuetan oinarriturik. Hirugarren erakusketa, «About Fashion», moda-argazkigintzaren historiako gertaera handiei buruzkoa, eta Lola Garridoren bilduma oinarri zuena, lagungarria izan da modaren eta beste arte eta adierazpen kultural batzuen –hala nola arte eszenikoen eta argazkigintzaren– arteko ikuspegia eskaintzeko.

Erakusketa egonkorra

BALENCIAGA, UN LEGADO ATEMPORAL

Balenciaga, legatu denboragabea Museoaren diskurtsoa bateratzen duen ardatza da, beira-arasa batzuetako edukia aldatuta, ehunak kontserbatu ahal izateko. Hiru aretotan, museoko eraikin nagusiko lehen solairuan dagoen erakusketan, Cristóbal Balenciagaren obraren ezaugarri nagusiak, haren sormenaren garapena eta jostintza-teknikari egindako ekarpen itzelak bistaratu ziren. Erakusketan 62 pieza, bozetoak eta Parisko maisoneko moda-erakusketen filmak daude; azken horiek Balenciaga Artxiboekin (Paris) izandako lankidetzari esker.

Erakusketa honen diskurtsoak Balenciaga Donostian lanean hasi zenetik, Parisen finkatu eta 30eko eta 40ko hamarkadetan erabateko arrakasta lortu zuenera arteko garaia biltzen zuen. Horrez gain, jostintzari teknikaren aldetik egin zion ekarpenaren berrikuspena barne hartzen zuen, baita haren estiloak 50eko eta 60ko hamarraldietan izandako garapenarena ere.

Prebentzio-kontserbazio edo kuratoretzaren kausaz aurten egindako txandatzeek erakusketetako piezen % 20ari eragin diote. Kuratoretza-aldaketei dagokienez, erakusketa egonkorreko *Balenciagaren funtsa* aretoa fokurik garrantzitsuenetakoa da. Bertan, txandatzeen ondorioz, obrari buruzko informazioa ematen duten pieza berrien infografiak egin ditugu. Bost bat piezaren inguruan ikerketa zehatza burutu behar izan dugu, eta beren patroiak, irudi historikoak eta zirriborroak lortu ditugu, besteak beste.



Aldi baterako erakusketak

BALENCIAGA. LUXUAREN ESPERIENTZIA

2015/05/01 – 2016/03/01

Ekoizpen propioan oinarritutako erakusketa honen xedea Balenciagaren irudiari testuinguru berri bat ematea da, hots: goi-mailako jostkintza-saloiena, eta bai beren bezeria eta bizibideena ere. Hiru kuboetako bigarren solairuan dago, museoko eraikin nagusian.

Goi-mailako jostkintza, hasi zenetik, emakumeekin lotutako luxuzko esperientzia baten adierazpen nagusizat har daiteke.

Esklusibotasun eta dotorezia mundu bat da; couturier-ek diseinatu eta artisau-metodoen bidez egindako sorkarien, erosketa-prozesua arautzen duten etiketa-kodeen eta bai sorkarien bai bezeroen erakustaldiak egiten diren testuinguru sozialen mundua.

Goi-mailako jostkintzako bezeroak elite bateko kide dira, eta garrantzi handia ematen diote beren jarduera sozialetan eramaten dituzten jantziei, beren nortasunaren, estatusaren eta bizi-estiloaren adierazgarri baitira. Goi-mailako jostkintzako etxeak aparteko klubak dira eta bakoitzaren arrakasta sozialaren erakusleho izaten dira.

Cristóbal Balenciagaren estilo denboragabea, aurrerapauso motel eta neurtukoa, beti garaiko moda baino urte batzuk aurreratuago doa, xehetasun sumagaitzen bidez nabarmenduta, eta hala, konfiantza, erosotasuna, dotorezia eta edertasuna eragiten ditu. Haren bezeroak etxearen doktrinarekin identifikatuta sentitzen dira: «Ongi jantzita egoteak ez du zerikusirik gonaren luzerarekin edo gerriaren altuerarekin. Ez da hain erraza. Emakumeak bere nortasuna aurkitu behar du lehenik, eta horrekin bat etorritz jantzi. Moda-sortzailearen eginkizuna nortasun hori goresten duten jantziak egitea da. Emakume orok du berez dotorezia, kanpora atera baino ez da egin behar». Cristóbal Balenciaga. *Ladies Home Journal*, 1956ko iraila.



BALENCIAGA ETA ARTE ESZENIKOAK

2015/06/23 – 2015/10/18

Modak eta eszenak aspalditik datorren lotura dute, eta eraginak eremu batetik bestera zabaldu dira historian zehar, mundu klasikotik bertatik, baina bereziki XVI. eta XVII. mendeetatik.

Testuinguru garaikidean, diseinatzaile askok onartu dute sormena beste baten mezu artistikoa helarazteko tresnatzat erabiltzeko erronka, beren lana testuinguru aldetik zorrotza, iradokitzaile baina sotila eta, batez ere, nabarmenki praktikoa izan beharraren jakitun.

Cristóbal Balenciagari ez zitzaion arrotza izan beste diziplina batzuetan ekarpena egiteko eta haien eragina jasotzeko interes hori, eta hori berresten du erakusketa honek, Getariako sortzaileak dantzaren, musikaren eta antzerkiaren unibertsoan hiru hamarkadaz baino gehiagoz izandako parte-hartzea aztertzen duenak.

Idazle nagusiek (Jean Cocteau, Albert Camus, Jacinto Benavente, Françoise Sagan edo Marcel Achard, besteak beste) beren pertsonaia literarioak bizirik ikusi zituzten Balenciagak garaiko figura nagusientzat egin zituen diseinu originalekin, Frantzia eta Espainiako eszenatokietan. Balenciagak lankidetzaren horietan bere egiten jakitearen eta dotoreziaren arrastoa utzi zuen. Trukean, ziurrenik, Paul Poiretek aipatutako sormen-pizgarri hori jaso zuen:

«Emakumerik ederrenak jantzi ditut, dotoreenak zoriontsu egin ditut, eta zoriontsu izan naiz neroni ere. Baina benetan sortzaile izan nadin, eman iezazkidazue Molièreren, Shakespeareren eta Calderónen bertsoak, haietan oinarrituz sor dezadan».

Lankidea: Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburua.



ABOUT FASHION

Lola Garrido Collection

2015/10/30 – 2016/01/31

Erakusketa horrek, Aldamar jauregiko aretoetan, xx. mendeko argazkigintzaren historiaren elementurik gogoangarrienak biltzen ditu.

Esparru hori oinarritzkoa da joerak sortu eta zabaltzeko; izan ere, diseinatzailearen sormena interpretatu, eta haren publikoaren emozioekin lotzen du. Erakusketa horren bidez, museoak harremanetan jarraitu nahi du lengoaia artistiko osagarriekin eta, era berean, Balenciagaren irudiarekin eta garaiarekin zerikusia izan zuten beste testuinguruak lantzen.

Erakusketan xx. mendeko lantzaileen maisu handien 86 argazki daude bilduta: Horst. P Horst, Helmut Newton, Irving Penn, Cecil Beaton eta Diane Arbus, besteak beste.



Nazioarteko Koprodukzioa

Bestalde, Cristóbal Balenciaga Museoak eta Calaisko Parpailaren Museoak *Balenciaga, Magicien de la Dentelle* (Balenciaga, parpailaren magoa) izeneko koprodukzioa aurkeztu dute Calaisen aurtengo maiatzaren eta irailaren artean. Harrera eta kritika oso onak izan ditu, eta Frantziako Kultura Ministerioak «interes nazionaleko erakusketa» izendatu du. Erakusketaren komisarioa Catherine Jean-Deterlie da, Frantziako ondarearen kontserbatzaile nazionala, hogeitun urte baino gehiagoz Galliera Museoko zuzendaria dena.

Museoak 40 janzki eta dokumentazio-pieza baino gehiago eman ditu koprodukzio honetarako, eta 2016an izango dugu Getarian ikusgai.

Pieza Nabarmena Programa

Erakusketa-programa honetan, museoko erakusketa egonkorrean tokirik ez zuten eta, era berean, museoko informazioa datu tematizatuekin sendotzen zuten piezaz osatutako serie bat erakusteko ahalbidea izango dugu. Horren xedea bisitari eduki erantsia ematea da, informazio zehatz sakonagoz lagunduz eta ohikoa ez den espazio ezberdin batean kokatuz.

Pieza nabarmeneko edukiak deskargatu eta gorde daitekeen liburuxka batean jaso dira, piezaren informazioa hedatuz.



1.



2.



3.



4.



5.



6.

1. Ezkontza-soinekoa, Donostiako EISAko langileek beste jostun batentzat egina.
2. Cristóbal Balenciagak Parisko tailerrean lan egiteko erabiltzen zuen aulkia.
3. Bi patroi, Eusko Jaurlaritzaren bildumakoak.
4. Dantza-soinekoa, 1935ean María Elena Arizmendik Donostiako Kursaalera ongintzako ekitaldi baterako egina.
5. Donostiako Orfeoiko tunika, 1964.
6. Fabiola de Mora y Aragónen erretratua, Nazario Montero Madrazok 1960an egina.




B

HEZKUNTZA

Modaren kulturarako

Cristóbal Balenciaga Museoko hezkuntza-arloak hiru hezkuntza-eduki mota sortzera bideratu du jarduera batez ere, nori dauden zuzenduta kontuan harturik: eskola-curriculum osatzen duten hezkuntza-edukiak; jendeari oro har (umeei, familiei eta modan modu *amateur* batez interesaturiko pertsoneri) zuzendutako hezkuntza-edukiak, eta jende espezializatuarentzako hezkuntza-edukiak (prestakuntza hartzen ari direnak zein sektoreko profesionalak).



Eskola-programa

Ikastetxeetarako hezkuntza-programaren helburua hauxe da: Museoa ezagutzen eta hartaz eta haren edukiaz gozaten laguntzea, parte-hartzeko eta prestakuntzako ekimenen bitartez. Eskaintza hezkuntza mailen arabera antolatuta dago, Haur Hezkuntzatik Lanbide Heziketara bitartean, eta besteak beste, ondorengo helburuak ditu.

Alde batetik, ikastetxeek ikasturteko plangintzan ikasgelatik kanpoko ekintza erabilgarri eta aberasgarriak sartzeari; beste alde batetik, ondare kulturala baloratu dadin sustatzea, eta bereziki, Cristóbal Balenciagaren sormenetik eratorritakoa, haren obrekin harreman zuzena izanda; azkenik, ikasleei Museoko obrekin lotzen dugun esanahia bilatzen eta, obrekin elkarrekintzan arituz, beraien ezagutza eraikitzen laguntzea.

Ekintzak, eskariaren arabera eskainita, hartzaileren hezkuntza-etapetara moldatuta daude, haur-hezkuntzatik batxilergo eta lanbide-heziketara arte, eta curriculumaren edukietara egokituta, eta jantzien bidez ezagutza bereganatzera bideratuta.

Programan parte hartzen duten taldeengandik jasotako feedbackean oinarritzen da proposamena. Horiek, esate baterako, ikastetxean landutako proiektuen edukien eta proposatutako ekimenen edukien arteko lotura aipatzen dute bisitaren motibazio modura. Ekimenak deskribatzeko ohiko hitza, gainera, egokia izaten da (adibidez: «Edukiak ikasleen adinetara behar bezain egokituta daude», «jarduera interesgarriak eta ikasleei doituta», «ingurumen-ikasgaiarekin zerikusia duelako», «azalpenak ikasleen mailari egokituta», etab.). Horrenbestez, aurreko ikasturtean hartutako ildoan alde egingo dugu, eta horiek garatu eta hobetzen saiatuko gara.

Ildo honetan, nabarmentzekoa da Planotik bolumenera jarduera, La Casa del Vacío arkitektura-estudioak museoarekin elkarlanean sortutako ekimena. Estudio honen espezialitatea beste diziplina artistiko batzuekin erlazionatutako arkitektura-laborategiak sortzea da. Jarduera honen helburua Getariako moda-sortzailearen sorkarrietan agerikoak diren forma- eta geometria-kontzeptuak irakastea da. Ekitaldi honetan berria da.

- Eskaintza egonkorraren jarduerak: 9 jarduerak eskola-curriculumeko hainbat eduki eta gaitasun lantzen eta osatzen dituzte. Prest daude beti ikastetxeen eskariari erantzuteko.
- Ikastetxe erabiltzaileak: 30
- Ikastetxe erabiltzaileen balorazioa: guztiek gomendatzen dute, eta esperientzia errepikatzeke asmoa ere agertu dute. Eta gogobetetasun-maila 9,11 da 10etik.

Publiko orokorrari zuzendutako hezkuntza-edukiak

Tipologia honetan sartzen diren ekintzak hezkuntza araututik kanpo daude; askotariko ekintzak dira, eta ludikoagoak. Ekintza horiei esker, beste ikuspegi batetik ezagutzen da Museoa, eta edukiak bereganatzeko beste metodo bat erabiltzea ahalbidetzen dute. Bi programa-tipologia bereizten ditugu.

FAMILIENTZAKO JARDUERA

Familientzako jardueren helburua sei eta hamabi urte bitarteko haurrak dituzten familiei Museoko bilduma modu ludikoan eta kreatiboan eskaintzea da. Parte-hartzaileek ikusgai dauden jantzi batzuk ezagutzeko eta aztertzeke aukera dute eta, era berean, haien sormena lantzen dute, jarduera praktikoko baten bidez. Esperientzia aberasgarria da eta, etxeko txikienez gain, helduek ere parte hartzen dute.

Familientzako tailer-programa 2014ko urtarrilean abiarazi zen eta, lehen esperientzia horren ostean, 2015eko ekitaldi honetan, familia-publikoarentzako hezkuntza-eskaintza sendotu egin nahi izan da. 9 hilabeteko aldizkakotasuna ezarri zaio programari, urritik ekainera arte, ekimenak hilabetearen behin burutuko direlarik. Normalean, hilabeteko hirugarren igandean izango dira, eta saioek bi orduko iraupena izango dute, gutxi gora behera. Programa ikasturtera moldatu da familia-publikoa gehienbat tokikoa delako eta, beraz, ikasturteko hiletan baino ez dute parte hartzen.

Programa finkatzeak, gainera, kanpoko sortzaile eta hezitzaileekin parte hartzeko bide berriak esploratzea ahalbidetu du. Hauetako hiru azpimarragarriak dira.

Programak izan dituen partaideen kopurua handitzen joan da urtean zehar, eta, % 69 handitu da aurreko urtekoarekin alderatuta.

UME ETA AISIALDIKO TALDEENTZAKO

Ikasleen udako oporraldiekin bat eginez, Museoak hainbat jarduera antolatu ditu haurrentzat, modara eta, oro har, jantzien mundura gerturatzeko eta ezagutzeko formula gisa. Ekimenon helburua museoaren espazio ireki, atsegin eta parte-hartzaile bihurtzea da, ikasteko eta ondo pasatzeko baliagarriak diren esperientzien bidez. Aurten ere sendotu da jarduera hori, erabiltzaile kopurua % 4,4 handitu baita.

MODA ETA DIY KONTZEPTUAK INTERESATZEN ZAIZKIEN HELDUENTZAKO

Helduentzako tailerrak nabarmenki praktikoak dira, ehungintzako tekniketarako hastapenak jorratzen dituzte, hilean behin edo bitan egiten dira –normalean, hileko bigarren eta laugarren igandean– eta museoaren edukia ezagutzeko eta ulertzeko bestelako metodo bat ematea dute helburu. Talde txikitik egiten dira jarduerak, ariketen metodologia parte-hartzaile guztientzat egokituta, eta parte-hartzaileek sortzeko eta esperimentatzeko aukera izaten dute. Tailerren iraupena ekimenen arabera da, baina, errealitatean, ordutegiak eta edukiak hedatzeko joera izan dugu, batz bestea 6 eta 7 orduko tailerrak eskaintzera iritsiz, gehienbat.

Partaide kopurua nabarmen handitu da aurreko urtearen aldean (% 120). 2015eko urtarriletik, arrakasta gehien izan duten tailerrak nahieran eskaintzen dira, hau da, eskatzen diren heinean. Modalitate berri honek museoaren bisita jarduerak praktiko batekin osatzea ahalbidetzen die aurrez antolatutako taldeei.

Joskintza-tailerrak

Museoak, Getariako Gure Txeru kultur elkartearekin lankidetzan, joskintzari eta kakorrazari buruzko hastapen-ikastaroak antolatu ditu aurten, inguruetakoa adituaren eskutik. Teknika hauek ikasteko jakin-mina duten eta, era berean, tokiko erakunde ludiko-kulturalekin harremanak ezarri nahi dituzten udalerriko pertsoneri erantzun emateko asmoa dute ekimenok.

Eduki hezigarri espezializatuak

Publiko profesionala

Publiko profesionalari zuzendutako ekintzen eskaintzak pisu handia dauka hezkuntza-programazio orokorraren barruan, eta profil espezializatuarekin lotutako ezagutzetan, gaitasunetan eta/edo esperientzietan sakontzen laguntzen dute. Programak hainbat elementu jendarteratzea du helburutzat, hala nola modaren testuinguruan elkarrekin bizi diren ogibide ezberdinei dagozkien ezaguera teknikoak, arrakasta izan duten profesionalak adierazitako bizipen pertsonalak, eta bai, profesional berriei laguntza emateko asmoz, negozioa garatzeko beharrezkoak diren ezagutza zehatzak ere. Topaketa hauetan, sektorearekin erlazionatutako enpresen lankidetzaz berezia izaten dugu, hala nola Alfa edo Rafael Matías.

MAISU-ESKOLAK ETA/EDO TOPAKETAK

Teoria eta praktikako saioak dira, non modaren sektoreko jarduneko profesional batek hartzaile espezializatuari jakintza, esperientziak eta ikuspegiak eskaintzen dizkien.

– Javier Martín

Modelatzearen teknikara eta bolumen-eraikuntzara hurbiltzea

2015/03/13 – 2015/03/15

Prestakuntza-urteetan, Javier Martínek Carmen eta Emilia Carriches ezagutu zituen. Bi emakume horiek Madrilgo EISA tailerreko langileak ziren, baita tailerreko buru Felisa Irigoyenen eskuineko eskuak ere. Bi emakume horiengandik Cristóbal Balenciagaren jostintza-teknikak ikasi zituen eta, ondoren, bere diseinuak zehaztu dituzten bolumenen eraikuntzari buruzko ezagutza ere jaso zuen.

– Miguel Elola

Jantziak sortzeko teknika espezifikotara hurbiltzea. Patroiak lehenagoratzeta eta berrinterpretatzea

2015/11/27 – 2015/11/29

Elkarren segidako bigarren urtez, Cristóbal Balenciagaren dizipulu izandako eta Pedro Rodríguezen mailako profesional handien kolaboratzaile lanetan aritutako Miguel Elola Recondo moda-sortzaile donostiarrak klase magistral bat emango du, bere seme eta eskuineko esku den Miguel Elola Zaragüetarekin batera.

IKASTARO ESPEZIALIZATUAK

Ikastaro espezializatuak honako hauei zuzenduta daude: bai eskola magistralek xede duten publikoari, bai museo-funtzioekin edo beste arte-diziplina batzuekin erlazionatutako profesionalei.

Azken bi urteotan, handitzen joan gara eskaintako ikastaroen kopurua, eta 2015eko ekimenak hiru izatea dugu helburu. Ikastaro horiek emateko, dagozkien espezialitateetako profesional entzutetsuak izaten ditugu gure artean.

– *Jantziatarako erakusketa-euskarriak sortzeko hastapen-ikastaro teoriko-praktikoa*

2015/07/01-2015/07/05 (37ORDU)

Proposamenak jantziatarako erakusketa-euskarriak egiteko material eta tekniko espezifikoetarako hurbilketa eskaini zuen, eta neurrira egindako manikia sortzea izan zen haren garapen praktikoaren xedea. Parte-hartzaile bakoitzari maniki-euskarri bat fabrikatzea proposatu zitzaion, prozesuan eraldatu eta guztiz egokitu behar izan zuten matrizea oinarri hartuta. Bérengère Ruffin izan zen ikastaroko irakaslea. Museoetarako jantzi-euskarriak sortzen espezialista da bera.



ARTE ESZENIKOETARAKO JANTZIEI BURUZKO IKASTAROAK

2015/10/16 – 2015/11/01

Balenciaga eta arte eszenikoak erakusketari loturik eta dss2016ko *Elkarrizketak* programaren barruan, Cristóbal Balenciaga Museoa janzkera eszenikoari buruzko bi ikastaro aurkeztu ditu.

– *Jantzi eszenikoak diseinatzeko hastapen-ikastaro teoriko-praktikoa*

(20 ORDU)

Ikastaro honen bitartez, parte-hartzaileek testuak aztertzeke tresnak bereganatu ahal dituzte, bai eta pertsonaien eta jantzien diseinu artistikorako baliabideak ere, ingurune eszenikoaren berezko hizkuntzara aplikatutakoak. Ikerne Gimenez da irakaslea, Bilboko eszenografoa eta figuringilea. Konpainia Berri Onenaren Max saria eskuratu zuen, *Desde lo invisible* lan plastikoari esker (2007), eta Eszena Zuzendarien Elkartearen eskutik figuringintzaren Adriá Gual saria jaso zuen, *Avaricia, lujuria y muerte* lanarengatik (2010).

– *Ikuskizunetako jantziak egiteko tekniken hastapen-ikastaroa*

(20 ORDU)

Ikuskizunetako jantziak egiteko prozesu eta teknika espezifikotara hurbiltzea eskaintzen du ikastaroak. Irakasleak: Eva San Miguel eta Marisa Echarri. Madrilgo Ikuskizunen Teknologia Zentroko Jantzien Alorreko arduradunak dira.

IKASTETXE ESPEZIALIZATUEKIN ELKARLANEAN BULTZATUTAKO PROIEKTUAK

Museoaren eta ikastetxe espezializatuen arteko elkarlan-proiektuak dira; Cristóbal Balenciaga eta haren lana sakonago aztertzeke zuzendutako proiektuak. Proiektuak neurrira egiten dira, dena delako ikastetxearen espezializazioaren eta curriculumaren arabera. 2015ean, urte osoko proiektu intentsiboa egin zen Euskadiko ikastetxe batekin, baita bi ikasketa-bidaia ere Madrilgo eta Bartzelonako beste ikastetxe batzuekin. Jarduera horietan 10etik 9,75eko gogobetetasuna dago batez beste.

B

BESTELAKO JARDUEN PROGRAMAZIOA

Museoa, aukeren eremua



Museoko erakusketen eta hezkuntzaren arloko programazioaren osagarri, kulturako proiektuak eta jarduerak ere hartu ditu museoak edo/eta horiek egiten parte hartu du; modarekin zuzeneko lotura duten proiektuak edo kultura- edo gizarte-interesekoak izan dira beti. Hona hemen Museoak programatutako jarduera kulturalak eta garatutako egitasmoak:

LANEGUNA, PERFORMANCEA

2015/04/11 – 2015/04/12

Jostun baten maleta. Entredós 3.0 aldi baterako erakusketaren amaieran, artistek, goi-mailako jostuntzako etxeetako lanegun bat simulatuz, espazioan esku hartu zuten eta erakusketaren lanetako bat amaitu zuten; zehazki, *Omenaldia jostun anonimoari* instalazioa.

GORPUTZA, SOINEKOA ETA MUGIMENDUA EGITASMOA

2015/03/01 – 2015/03/06

Proiektu hau Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren programazioko parte den «Elkarrizketak» programaren barruan kokatzen da, eta lurraldeko kultura-eragileen eta diziplinar-teko modu eta lengoai berrien arteko harremanak bultzatu nahi ditu. Museoaren «Gorputza, soinekoa eta mugimendua» proposamenaren kasuan, Dantzaz konpainiako kideekin eta Vitali Safronkinerekin elkarlanean, egoitza sortzaileen bidez esploratzea da xedea.

MUSEOEN NAZIOARTEKO EGUNA

2015/05/16 – 2015/05/17

Aurtengo gaiak –Gizarte jasangarriranzko museoak– bizi- eta garapen-ohiturak naturaren mugetara egokitzeko beharraz herritarrak kontzientziatzeko zentro museistikoek betetzen duten papera errekonozitzen du. Cristóbal Balenciaga Museoak kontzeptua erakundearen edukira egokitu du, jarduera programa berezia antolatzeko. Hala, modako jardunbide jasangarriei buruzko hausnarketa sustatu du.

BALENCIAGAREN ITSASOA

2015/07/19 – 2015/08/30

Cristóbal Balenciaga Museoak bisita turistikoa eta kulturala egiteko aukera eskaini du; hots, euskal kostaldea itsasontziz zeharkatzea, Donostiatik Getariako arrantza-portura, eta bertan museo bisitatu eta bertako produktu tipikoak dastatzea. Uztailera eta abuztuko igandeetan egin da.

EUSKAL KOSTALDEKO MUSEOEN EGUNA

2015/06/20 – 2015/06/21

Euskal kostaldeko museoaren sarearen eguna zela eta, «Getariako seme kutunen legatua: Balenciaga eta Elcano» bisita diseinatu eta garatu genuen Getariako Udalarekin lankidetzan, nazioarteko garrantzi eta proiektu biko irudiei balioa eransteko.

ONDAREA BERTATIK BERTARA: MUSEOA, BARRUTIK

2016/11/16

Munduko Ondarearen Nazioarteko Egunaren kariaz, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako *Ondarea bertatik bertara* programaren barruan, *Museoa, barrutik* bisita aurkeztu genuen. Honen xedea museoak ehunen ondarea zaindu eta kontserbatzeko egiten duen lana erakustea zen. Bisitak barne hartu zituen normalean ikusi ezin daitezkeen museoaren eremu pribatuak ere, hala nola beira-erasen atzealdea, zaharberritze-laborategia edota biltegiak.

Museoaren ohi ez bezalako ikuspuntua eskaintzeaz gain, lagun, emaile eta emaile potentzialei bisita eskusiboa eskaintzeko proposamen paraleloa mahairatzeko balio izan du jardunaldi honek. Proposamen horren bidez, ondarea egoera onean gordetzearen garrantziarekiko eta ehunen fintasunarekiko sentikortu nahi izan dugu jendea, aldi berean dohaintza berriak erakar ditzakeen marketin-ekintza bilakatu.



MUSEOA ETA ARTE ESZENIKOAK

Balenciaga eta arte eszenikoak erakusketarekin bat eginez, kultura-ekitaldi hauek programatu ditugu:

DANTZA MUSEOAN

2015/07/31

- *Chamaleon*
Bost dantzari, euren aulkien inguruan grabitatu, altzari horiek beren gorputzaren parte bihurtu izan balira bezala.
Koreografia: Itzik Galili
Musika: John Cage
Estreinaldia: Rotterdamse Dansacademie, 1998
- *Few Brief Sequences*
Obra hainbat eszena laburrez osatua dago. Sei dantzarik barroko akorde sutsuz lagunduta egingo dute dantza.
Koreografia: Jacek Przybylowicz
Musika: Marin Marais
Munduko sorkuntza: Polish National Ballet, 2005

GAU IREKIA - JAZZ GAUA

2015/08/29

Erakusketak gaueko ordutegian bisitatuz gero, Tutti Frutti Jazz Band boskotearen zuzeneko musika izango duzu bidelagun.

DONOSTIAKO ORFEOIA ETA CBM

2015/10/18

Balenciaga eta arte eszenikoak erakusketaren itxieraren kausaz, Museoa eta Donostiako Orfeoiak duten harremana irudikatzen duen ekitaldi hau antolatu genuen. Erakundearteko hitzarmen baten bidez, harreman hau museoa inauguratzean formalizatu zen, eta Balenciagak berak Orfeoiarekin zuen harremanaren jarraipena besterik ez da.

Lankidetzeta-hitzarmen horren zati moduan, Orfeoi Gazteak programa anitz eta hunkigarri bat interpretatu zuen, eta hileko pieza nabarmena bisitatzeko aukera izan zuen: Balenciagak 1964an orfeoilariantzat diseinatutako tunika, hain zuzen ere.

SPEED DATING BALENCIAGA

2015/12/13

Santa Luzia Eguna ospatzeko jarduera bat da, jostunen zaindariari eskainitako eguna baita hori. EISAko garai bateko sei jostun josteko makinaren aurrean eseri ziren. Ikusleak haiekin eseri ziren bost minutuz eta jostunen ibilbide profesionalari, abilezia teknikoari, bizipen pertsonalei eta esperientziari buruzko kontakizunak entzuteko aukera izan zuten, speed datingean bezala. Hainbat belaunaldiko pertsonak elkartzeko jarduera izan nahi zuen. Jostunek Balenciaga etxearen ezagutzak zabaldu zituzten elkarrizketa labur horietan: goi-mailako jostuntzako etxe bateko lanari buruzko bitxikeriak, zereginei buruzko zalantzak, lan jakin bat errazago egiteko trikimailuak, etab.

Halaber, beste eragile batzuekin elkarlanean aritu da museoak, modarekin zuzenean lotutako edo interes kultural edo sozialeko ondorengo proiektu eta jarduera kulturaletan:

- *Biarritz et la Mode* liburuaren aurkezpena
Editions Atlantica argitaletxearekin lankidetzan
2015/07/14
- Gipuzkoa de Moda. Roberto Etxeberriaren desfilea
Kutxa Kultur Modarekin eta Teledonostirekin lankidetzan
2015/05/09
- 2015eko City Street Festival. Custo Barcelonaren desfilea
2015/09/25

Museoaren instalazioak, gainera, irekita egon dira getariarentzat eta, oro har, publikoarentzat, hainbat ekitaldi egiteko; esaterako:

- San Anton Eguna: bertso-saioa
Getariako Udalarekin lankidetzan
2015/01/16
- Antxoa Eguna: harrera
Getariako Udalarekin eta Arrantzale Kofradiarekin lankidetzan
2015/05/08
- Mikel Erentxunen kontzertua
Getariako Udalarekin eta Arrantzale Kofradiarekin lankidetzan
2015/05/08
- Antzerki-formako kontzertua eta musika-eskola
Getariako Udalarekin lankidetzan
2015/05/22

Jarduera profesionalak

Kanpoko hainbat erakundek ere erabili dituzte museoko eremuak askotariko lan-sektoreekin lotutako ekitaldiak egiteko.

Eraikin didaktikoko ataria, erabilera anitzeko aretoa, auditoriuma, ganbara eta ikasgelak hornituta daude; horrez gain, askotariko formatuak eta aukerak ere badituzte era guztietako ekitaldietara egokitzeko.

Hori horrela, museoak 2015an 1.500 erabiltzaile hartu ditu kanpoko erakundeek antolatutako zenbait ekitalditan. Besteak beste:

- Sariak emateko ekitaldiak eta urteurren-galak (1)
- Batzarretako galako afariak (1)
- Enpresen bilerak (2)



B

KOMUNIKAZIOA / BISITARIAK

Gure publikoak ezagutuz

Bisitariak

Aurten, publikoen azterketa bat abiarazi dugu museoko bisitariak hobeto ezagutzeko, bai eta beren itxaropenak, museora bertaratzeko erak, gogobetetze-maila, erabiltzen dituzten zerbitzuak eta abar ezagutzeko ere.

Profil demografikoa

Generoari dagokionez, % 66 emakumeak dira eta % 34 gizonak; beraz, emakumeak dira gehiengoa. Kasu guztietan, 40 eta 55 urte arteko adin-tartea da nagusi (% 32) eta, horren ondoren, 25 eta 40 urte artekoa (% 27). Udan, 25 urtetik beherakoak % 24 izan dira eta 55 urtetik gorakoak % 17; udaberrian eta udazkenean, aldiz, ia alderantzikatu egin dira zifrok.

Jatorriari dagokionez, % 34 EAETik datoz (batez ere Gipuzkoatik, % 22), % 40 beste erkidego batzuetatik (bereziki Madriletik, Kataluniatik eta Nafarroatik), eta % 26 atzeritik (batez ere Frantziatik, % 19). Udan, herrialdeko eta atzerriko bisitari gehiago daude; udaberrian eta udazkenean eta asteburuetan, tokiko bisitari gehiago ditugu.

Bisitatze arrazoiak

Galdetegiari erantzun dioten % 10 baino ez dira ari bisita errepikatzen. Gainerako % 90 lehen aldiz bisitatzen ari dira: Museora etortzeko arrazoiaren artean, % 42k diote moda interesatzen zaiela edo gustuko dutela; % 14k diote josteketa eta joste-lana gustuko dituztela; % 20k diote Balenciaga ezagutu nahi dutela; eta % 32k diote Getaria ezagutu nahi dutela. % 10ak baino ez diote aldi baterako erakusketak interesatzen zaizkiela.

Museoko zerbitzuen balorazioa

Museoaren balorazio orokorra oso ona da (5etik 4,5), Minube, Tripadvisor eta beste bitarteko batzuetan lortutako kalifikazioek berretsita. Balorazio onena izan duten alderdiak bisitariari emandako tratua, eraikina, bilduma eta museografia izan dira. Bisitarien % 98k bisita gomendatuko lukete.

Bisitarien zifrari helduta, 39.739 bisitari izan ditugu aurten; hots, aurreko urtean baino % 6,5 gehiago.

Komunikazioa

Museoko Komunikazio Sailaren zeregina Cristóbal Balenciaga Fundazioak sortu zenetik dituen helburuak betetzen ahalegintzea da. Xede hori betetzeko, bere gain hartu du museoaren, Fundazioaren eta Cristóbal Balenciagaren figuraren inguruko komunikazio orokorra, eta hiru lan-arlotan gauzatu du:

1. Prentsa eta komunikazio instituzionaleko kabinetea

- Prentsaurrekoen kopurua: 4
- Bidalitako prentsa-oharren kopurua: 12
- Artatutako press tripen kopurua: 9 (nabarmengarriak dira hedabide hauetako kazetarien bisita: *Le Figaro*, *Corriere della Sera*, *Le Progrès*, *L'Express*, *Wallpaper*, *Sud Ouest*, *Le Mag Sud Ouest*, *Port Magazine*, *Monopol Düsseldorf*, *Woman Madame Figaro*, *Elle*, *Unidad Editorial*, *Mujer Hoy*).

2. Webgunearen eta komunikabide sozialen bidezko komunikazioa

- Bidalitako buletinak: 12
- Bidalitako buletin bereziak: 10
- Facebookeko lagunak: 9.158
- Twitterreko jarraitzaileak: 4.638
- YouTube kanala: 272 harpidedun / 67.000 erreproduzio
- Webgunean izandako bisitak: 32.032 orrialde ikusita, bisitari berriak % 72 – returning-a % 29

3. Komunikazio korporatiboa eta publizitatea

Museoa ezagutarazteko eta bisitariak erakartzeko asmoz, martxan jarri dira hainbat publizitate-ekintza. Haien artean, hauek gailentzen dira:

- Prentsako iragarkiak: 45 iragarki hainbat hedabide jeneralista eta espezializatutan
- Kanpo-komunikazioa eta seinaletika: Getarian, banderolak; Donostian, errotuludun autobusak eta barne-pantailak; Bilbon, metroko pantailak; Hondarribiko eta Bilboko aireportuetan, mupiak.
- Hedapen-euskarriak: presentzia lurraldeko turismo-gida nagusietan, eta publizitate-euskarriak banatzea EAEN eta Frantziako hegoaldean (turismo-bulegoak eta beste espazio estrategiko batzuk).

B

INFORMAZIO EKONOMIKOA



Cristóbal Balenciaga Fundazioak txosten honetan azaldutako programaziora 240.000 euro bideratu ditu; % 70 erakusketak egiteko izan da, % 20 hezkuntzara zuzendu da, eta % 10, azkenik, bestelako kultura-jarduerak egiteko erabili da.

Fundazioak museora bideratzen duen aurrekontu osoaren % 16 baino ez da zuzendu programaziora; izan ere, aurrekontuaren gainerakoa haren funtzionamenduari eta zerbitzuei lotutako egitura- eta inbertsio-beharrei erantzuteko da.

Aurrekontu honen finantzaketaren % 77,5 Fundazioaren patronatua osatzen duten erakunde publikoek egindako ekarpenetatik dator; haren % 20, berriz, erakundeak berak sortutako diru-sarreretatik dator, eta gainontzeko % 2,5 babesle eta ekarpenetatik.

Gardentasuna

2014az geroztik, informazio ekonomikoa argitaratzen du Fundazioak, gardentasunean eta publikoarekiko harremanean hobetze aldera. Honako hau informazio ekonomiko nagusien laburpen bat bada ere, Fundazioaren urteko kontuak egoitzan kontsulta daiteke, aurrez eskatuta.

Egoeraren balantze laburtua

AKTIBOA	2015	2014
A. AKTIBO EZ-ARRUNTA	15.871.133	16.216.096
I. IBILGETU UKIEZINA	6.721.124	7.144.540
1. Bestelako ibilgetu ukiezina	6.695.019	7.134.157
2. Jabetza industrialak	6.383	10.344
3. Aplikazio informatikoak	19.721	39
II. ONDAREAREN PARTE DIREN ONDASUNAK	6.231.616	5.815.935
III. IBILGETU MATERIALA	2.918.393	3.255.621
Eraikinak	1.89.2019	1.161.783
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu ukiezina	1.729.184	2.093.838
B. AKTIBO ARRUNTA	400.954	569.534
IV. ZORDUN KOMERTZIALAK ETA KOBRATU BEHARREKO BESTE KONTU BATZUK	99.953	7.248
Bezeroak, salmentengatik eta zerbitzu-emateagatik	4.937	4.711
Beste zordun batzuk	95.016	2.537
VII. EPE LABURREKO PERIODIFIKATZEAK	15.065	-
VIII. ESKUDIRUA ETA BESTE AKTIBO LIKIDO BALIOKIDE BATZUK	285.936	562.286
AKTIBOA, GUZTIRA (A+B)	16.272.087	16.785.630
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2015	2014
A ONDARE GARBIA	15.416.455	15.675.583
A-1. FUNTS PROPIOAK	883.833	824.407
I.FUNDATZE-HORNIDURA	1.251.343	1.251.343
III.AURREKO EKITALDIETAKO SOBERAKINA	(426.936)	(488.939)
IV.EKITALDIKO SOBERAKINA (POSITIBOA EDO NEGATIBOA)	59.426	62.003
A-3. JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK	14.532.621	14.851.176
B PASIBO EZ-ARRUNTA	281.250	375.000
II.EPE LUZEKO ZORRAK	281.250	375.000
1. KREDITU-ERAKUNDEEKIKO ZORRAK	281.250	375.000
C PASIBO ARRUNTA	574.382	735.047
II. EPE LABURREKO HORNIDURAK	22.509	24.235
III.EPE LABURREKO ZORRAK	96.708	132.667
1. Kreditu-erakundeekiko zorrak	94.034	94.830
3. Epe laburreko beste zor batzuk	2.674	37.836
VI. HARTZEKODUN KOMERTZIALAK ETA ORDAINDU BEHARREKO BESTE KONTU BATZUK	455.166	578.146
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA (A+B+C)	16.272.087	16.785.630

Emaitzen kontu laburtua

DESCRIPCIÓN	2015	2013
ERAGIKETA JARRAITUAK		
1 ENTITATEAK JARDUERA PROPIOENGATIK LORTUTAKO DIRU-SARRERAK	1.342.771	1.309.572
a. Kideen eta afiliatuen kuotak	5.150	5.870
b. Erabiltzaileen ekarpenak	223.901	219.982
c. Ekit. emaitzan input. diru-laguntza, dohain. eta legatuak	15.000	-
d. Ekit. emaitzan input. diru-laguntzak, dohain. eta legatuak	1.098.720	1.083.720
2 DIRUZKO LAGUNTZAK ETA BESTE	-	-
3 MERKATARITZA-JARDUERAKO SALMENTAK ETA BESTE SARRERA ARRUNT BATZUK	37.430	39.685
6 HORNIDURAK	-	(6.108)
7 USTIAPENeko BESTELAKO DIRU-SARRERAK	29.307	14.195
8 LANGILERIA-GASTUAK	(257.845)	(234.812)
a. Soldatak eta asimilatua	(199.787)	(184.585)
b. Gizarte-zamak	(58.058)	(50.227)
9 USTIAPENeko BESTELAKO GASTUAK	(1.065.371)	(1.064.901)
a. Kanpoko zerbitzuak	(1.057.459)	(1.058.410)
b. Tributuak	(7.890)	(3.382)
c. Galerak, narriadura eta horniduren aldakuntza merkataritza-eragiketak direla	(22)	(3.109)
10 IBILGETUAREN AMORTIZAZIOA	(954.919)	(907.201)
11 EKITALDIKO EMAITZARA INTSUL. DIRU-LAG., DOHAIN. ETA KAPITAL LEGATU	928.783	905.048
12 HORNIDURA-SOBERAKINAK	-	-
13 IBILGETUA BETERENTZEAREN ONDORIOZKO BALIO-GALERA ETA EMAITZA	-	-
14 BESTE EMAITZA BATZUK	6.057	16.818
A JARDUERAKO SOBERAKINA	66.213	72.296
15 DIRU-SARRERA FINANTZARIOAK	80	124
16 GASTU FINANTZARIOAK	(6.867)	(10.417)
17 FINANTZA-TRESNEN ARRAZOIZKO ALDAKUNTZA	-	-
18 KANBIO-DIFERENTZIAK	-	-
19 FINANTZA-TRESNAK BETERENTZEAREN ONDORIOZKO BALIO-GALERA ETA EMAITZA	-	-
B ERAGIKETA FINANTZARIOETAKO SOBERAKINA	(6.787)	(10.293)
C ZERGEN AURRETIKO SOBERAKINA (A+B)	59.426	62.003
20 MOZKINEN GAINEKO ZERGA	-	-
D EKITALDIKO SOBERAKINA C+20	59.426	62.003
E SOBERAKINEAN ONARTUTAKO ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZA	59.426	62.003
21 ZUZENEAN ONDARE GARBIRA EGOTZITAKO SARRERAK ETA GASTUAK	610.229	8.313.513
22 EKITALDIKO SOBERAKINEN BIRSAILKAPENAK	(928.783)	(905.048)
F ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZAK	(259.128)	7.408.465
G EKITALDIKO SOBERAKINAK	(259.128)	7.470.468

Aurrekontuaren gauzatzea

GASTUAK/INBERTSIOAK (JARDUERA PROPIOA)

	REALIZADO
Laguntzen eta bestelakoen ondoriozko gastuak	
A. Diruzko laguntzak	-
B. Diruzkoak ez diren laguntzak	-
C. Elkarlanen eta gobernu-organoen ondoriozko gastuak	-
Diru-laguntzak itzultzea	-
Bukatutako produktuen eta fabrikatzen ari direnen izakinen aldakuntza	-
Hornidurak	-
Langileria-gastuak	257.845
Jarduerako beste gastu batzuk	1.065.371
Ibilgetuaren amortizazioa	954.919
Ibilgetuaren balio-galera eta besterentzearen emaitza	-
Gastu finantzarioak	6.867
Tresna finantzarioen arrazoizko balioaren aldakuntza	-
Truke-aldeak	-
Tresna finantzarioen balio-galera eta besterentzearen emaitza	-
Irabazien gaineko zergak	-
Gastuen guztizko partziala	2.285.002
Ibilgetua eskuratzea (ondare historikoko ondasunak salbu)	-94.727
Ondare historikoko ondasunak eskuratzea	-
Komertzialak ez diren zorrak kitatzea	93.750
Baliabideen guztizko partziala	188.477
TOTALA	2.473.479

DIRU-SARRERAK

	GAUZATU
Ondaretik eratorritako errentak eta beste sarrera batzuk	928.783
Jarduera propioetako salmentak eta zerbitzuen prestazioak	238.901
Merkataritza-jardueren ondoriozko diru-sarrera arruntak	66.737
Sektore publikoaren diru-laguntzak	1.083.720
Ekarpen pribatuak (babesletza eta kideen kuotak)	5.150
Beste mota batzuetako diru-sarrerak	6.117
LORTUTAKO DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	2.344.408

Auditoretza txostena



1

INFORME DE AUDITORIA INDEPENDIENTE DE CUENTAS ANUALES ABREVIADAS

A La Junta del Patronato de:

FUNDACION CRISTOBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA

Informe sobre las cuentas anuales abreviadas

1. Hemos auditado las cuentas anuales abreviadas adjuntas de la sociedad **FUNDACIÓN CRISTOBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA**, que comprenden el balance abreviado al 31 de diciembre de 2015, la cuenta de resultados abreviada y la memoria abreviada correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

Responsabilidad de los administradores en relación con las cuentas anuales abreviadas

2. La Dirección de la fundación es la responsable de formular las cuentas anuales abreviadas adjuntas, de forma que expresen la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y del excedente de **FUNDACIÓN CRISTOBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA** de conformidad con el marco normativo de información financiera aplicable a la entidad en España, que se identifica en la Nota 2 de la memoria adjunta, y del control interno que consideren necesario para permitir la preparación de cuentas anuales libres de incorrección material, debida a fraude o error.

Responsabilidad del auditor

3. Nuestra responsabilidad es expresar una opinión sobre las cuentas anuales abreviadas adjuntas basada en nuestra auditoría. Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la auditoría de cuentas vigente en España. Dicha normativa exige que cumplamos los requerimientos de ética, así como que planifiquemos y ejecutemos la auditoría con el fin de obtener una seguridad razonable de que las cuentas anuales están libres de incorrecciones materiales.
4. Una auditoría requiere la aplicación de procedimientos para obtener evidencia de auditoría sobre los importes y la información revelada en las cuentas anuales. Los procedimientos seleccionados dependen del juicio del auditor, incluida la valoración de los riesgos de incorrección material en las cuentas anuales, debida a fraude o error. Al efectuar dichas valoraciones del riesgo, el auditor tiene en cuenta el control interno relevante para la formulación por parte de la entidad de las cuentas anuales, con el fin de diseñar los procedimientos de auditoría que sean adecuados en función de las circunstancias, y no con la finalidad de expresar una opinión sobre la eficacia del control interno de la entidad. Una auditoría también incluye la evaluación de la adecuación de las políticas contables aplicadas y de la razonabilidad de las estimaciones contables realizadas por la dirección, así como la evaluación de la presentación de las cuentas anuales tomadas en su conjunto.

Sayma Auditores, S.L.
Avda. de la Libertad, 10 - 7.
20004 Donostia - San Sebastián
Tel: 943 44 01 30 Fax: 943 44 01 37
E mail: auditores@sayma.es www.sayma.com

MEMBER OF International,
a world-wide network of independent accounting firms and business advisors.

5. Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión de auditoría.


Opinión

6. En nuestra opinión las cuentas anuales abreviadas adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la sociedad **FUNDACIÓN CRISTOBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA** a 31 de diciembre de 2015, así como del excedente correspondiente al ejercicio anual terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

Informe sobre otros requerimientos legales y reglamentarios

7. La memoria de actividades fundacionales adjunta, contiene las explicaciones que los Órganos de Gobierno consideran oportunas sobre las actividades fundacionales realizadas durante el ejercicio para cumplir con su fin fundacional y no forma parte integrante de las cuentas anuales. Hemos verificado que la información contable que contiene la citada memoria de actividades concuerda con las de las cuentas anuales del ejercicio 2015. Nuestro trabajo como auditores se limita a la verificación de la memoria de actividades con el alcance mencionado en este mismo párrafo y no incluye la revisión de información distinta de la obtenida a partir de los registros contables de la Entidad.

SAYMA AUDITORES



Fdo: Ardoni Arzallus Mendiluce

San Sebastián a 18 de mayo de 2016

sayma auditores